

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin betiko onespena ematea Aguraingo "Curtidos Harresi" UE 49-1 egikaritze unitatea urbanizatzeko jarduketa programari

2019ko apirilaren 3ko tokiko gobernu batzarraren erabaki bidez, behin betiko onespena eman zitzaion Aguraingo "Curtidos-Harresi" UE 49-1 egikaritze unitatea urbanizatzeko jarduketa programari, Aguraingo Udalak eskatuta.

Hirigintzako jarduketa programaren laburpena:

- Eremua: Aguraingo udalerriko "Curtidos Harresi" UE 49-1 egikaritze unitatea.
- Sailkapena eta kalifikazioa:
 - Curtidos azpizona: bizitegitarako lurzoru urbanizagarria.
 - Harresi azpizona: hiri lurzoru finkatua eta urbanizatua.
- Eremuari izendatutako hirigintza eraikigarritasuna: 38.350 metro koadro.
- Jarduketa-sistema: Hitzarmena.
- Aurrekontua: 1.731.167,96 euro.
- Epeak:
 - Hitzarmena sinatzea: bi hilabete urbanizatzeko jarduketa plana onartzen denetik.
 - Ituntze-batzarraren eraketa: bi hilabete hitzarmena sinatzen denetik.
 - Berrito lurtikatzeko proiektua egitea eta hari hasierako onespena ematea: lau hilabete ituntze-batzarra eratzen denetik.
 - Urbanizazio lanak egitea: hamabi hilabete baimena ematen denetik.
 - Emaitzako orubeak eraikitzea: hirurogeita bi hilabete birpartzelazio proiektua behin betiko onesten denetik.

Erabaki honek agortu egiten du administrazio bidea, eta bere kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, BI HILABETEko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsua, erabakia hartu duen organoari berari zuzendua, HILABETEko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera; horren esanbidezko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, berraztertze errekurtsua ezesten duen ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Agurain, 2019ko apirilaren 16a

Alkatea

IÑAKI BERAZA ZUFIAUR